

BALDINTZA OROKORRAK

1. **ESKAERA**

Eskatzaileak eskaera-formularioa behar bezala bete eta bidali beharko du, behar duen argazki-materiala eta formatu mota adieraziz, bai eta material horri emango dion erabileraren berri emanez ere. Argazkia publizitate-kanpaina batean erabiltzen denean, iragarki motaren eta formatuaren deskribapen zehatza emango da formulario honetan, eta zein komunikabidetan argitaratuko den adieraziko da.

2. **MATERIALEN ORDAINKETA ETA BIDALKETA**

Eskatzaileak aipatutako diru-kopurua sartuko du MUSEOaren kontuan. Ordainketa egin dela egiaztatu ostean, MUSEOAK baimena emango du eta argazki-materialak bidaliko ditu. Aurreikusitako erreprodukzioa egiten ez bada, ez da ordainketaren dirua itzuliko.

3. **ERABILERA**

Argazki-materiala eskabidean deskribatutako moduan eta helburuetarako baino ezin izango du erabili eskatzaileak, eta, betiere, baldintza hauekin bat etorritik. Eskatzaileak inondik ere ezin izango dio beste helbururik eman eskuratutako argazki-materialari. Aldi baterako erakusketa baterako bada, irudiaren erreprodukzioa eskaeraren xede izan den erakusketa-proiektuari lotuta geratuko da, eta erakusketa horretarako finkatutako daten artean erabili ahal izango da soilik. Horri dagokionez, eta inongo kosturik gabe, irudiaren erabilera baimenduta dago komunikabideetarako (prentsa, telebista...), hezkuntza materialerako, eta eskatzailearen web orrirako (bereizmen txikian), azken kasu horretan soilik aldi baterako (erakusketaren daten artean).

4. **LANAREN OSOTASUNA**

MUSEOaren argazkien edozein erreprodukzio egiteko orduan, irudion osotasuna errespetatu beharko da, inongo aldaketarik egin gabe, ez neurrian, ez kolorean... Irudiaren xehetasun edo zati baten erreprodukzioa egin nahi bada, MUSEOaren alde aurreko eta idatzizko baimena beharko da ezinbestean. Kasu horretan, "xehetasuna" aipamena jarri beharko da kredituetan. MUSEOAK lagatutako argazkiak ezin izango dira inola ere manipulatu. Debatuta dago erreprodukzioan gainjartzeak egitea (ez irudiena, ez testuena), alde aurreko eta berariazko baimenik gabe.

5. **EKOIZPEN EDITORIALAK**

Argazkiak ekoizpen editorial batean erabiliko badira, emandako baimena lanaren edizio bakarrerako izango da.

6. **KORTESIAZKO ALEAK**

Eskatzaileak konpromisoa hartzen du Museoak emandako argazkiak jasotzen dituen lanaren **bi ale** bidaltzeko **Artxiboa eta Dokumentazio Saila** (Museo plaza, 2. 48009 BILBAO). Baldintza horrek liburuen ediziorako balio du, bai eta bideoen, ikus-entzunezkoen edo irudi-erreproduzio gisa erabil daitezkeen beste produktu batzuen produkzioarako ere.

7. **HIRUGARRENEI LAGATZEKO DEBEKUA**

Gutziz debekatuta dago eskatzailea ez diren hirugarrenei argazkiak lagatzea.

8. **KREDITUAK**

Argazkiak argitaratuko dituen lanak, kredituen zerrendan edo erreproduzitutako irudi bakoitzaren ondoan, eskubideen erreserba hau jaso beharko du:

© Bilboko Arte Ederren Museoa-Museo de Bellas Artes de Bilbao

9. **HIRUGARRENEEN ESKUBIDEAK**

Eskatzaileak ordaindutako erreproduzio-eskubideak MUSEOAK emandako argazkien erreproduzio-eskubideei dagozkie soilik. Oraindik ere indarrean dauden jatorrizko artelanei dagozkien egile-eskubideak Visual Entidad de Gestión de Artistas Plásticos (VEGAP) erakundeari edo dagokion erakundeari ordaindu beharko zaizkio, MUSEOARI ordaindutako zenbatekoetatik aparte.

10. **BALDINTZAK EZ BETETZEA**

MUSEOAK egokitzen jotzen dituen legezko ekintzak egin ahal izango ditu baldintza hauek betetzen ez dituzten pertsonen aurka, eta MUSEOA eta eskatzailea Bilboko Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioen menpe geratuko dira, norberaren foru propioari uko eginez, aipatutako foru hori beste bat izango balitz.